

ar**o**a

euskara indarberitzeko
eta euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategikoa

Aizarnazabalen euskara indarberitzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa

2025-2035



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

1	Sarrera	3
1.1	AROA diseinatzeko prozesua:.....	3
1.2	Talde eragilea osatzea:	3
1.3	Prozesua diseinatzea:.....	4
1.4	Diagnostikoa egitea:	4
1.5	Galdetegia bidaltzea eta datuak jasotzea:.....	4
1.6	Herritarren parte hartze saioak:	4
1.7	AROA plana diseinatzea:.....	5
2	Diagnostikoa.....	6
2.1	Aizarnazabalgo datu demografikoak eta ekonomikoak	6
2.1.1	Biztanle kopurua	6
2.1.2	Biztanleak, adin taldeka.....	7
2.1.3	Biztanleen jatorria	8
2.1.4	Atzerrian jaiotakoak, herrialde taldeen arabera.....	9
2.1.5	Jarduera ekonomikoa	10
2.2	Aizarnazabalgo datu soziolinguistikoak.....	10
2.3	Herritarren iritzia euskarak duen egoerari buruz.....	13
2.4	Orain arteko plangintzaren balorazio kualitatiboa.....	16
3	AROA 2024-2034.....	20
3.1	Nahi estrategikoa, misioa eta ikuspegia	20
3.1.1	Misioa	20
3.1.2	Nahi estrategikoa.....	20
3.1.3	Ikuspegia.....	20

1 Sarrera

Aizarnazabal euskararen arnagune bat da, hau da, herritarren % 80 baino gehiago euskaldunak dira; eta, oro har, eroso eta normaltasunez erabiltzen da euskara egunerokoan. Gainera, UEMAko kide da. Dena dela, azken urteetan gero eta kezka handiagoa ari da sortzen euskararen erabileraren inguruan.

Azken urteetan, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) egon da martxan udalerrian, eta UEMAk izan du ardura plana betearazteko eta jarraipena egiteko. Aurten, hausnarketa prozesua egin da euskararen erabilera sustatzeko zein erronka dituen aztertzeke, eta horren arabera Eusko Jaularitzaren AROA marko berrira egokitutako plangintza berri bat diseinatzeko. Egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta aurrera begirakoak diseinatu dira.

Udalak abiatu du prozesua UEMAren aholkularitzarekin eta hainbat herritarrekin batera. Txosten honetan jaso dira: alde batetik, 2025-2035 aldirako euskararen plana diseinatzeko egin den prozesua (metodologia, diagnostikoa, prozesuan jasotako edukia) eta, bestetik, Aizarnazabalen euskararen erabilera areagotzeko aurrera begira dituen erronkak eta landu beharreko ildoak eta ekintzak.

Prozesua bera aberasgarria izan da, herritarrekin eta herriko hainbat eragilerekin batera lan egin delako eta, batez ere, horrek berak aukera eman duelako euskara plana gauzatzeko antolaketaren eta egituren inguruan hausnartu, zenbait herritar aktibatu eta proposamen berriak sortzeko. Esan genezake horixe dela prozesu honek eta plan berri honek ekarri duen berritasun nagusia: Gobernantzaren arloa. Azken batean, AROA elkarlanerako proposamen marko bat da, erakunde nahiz eragile sozialen arteko lankidetzaren sustatzen duena, eta Aizarnazabalen ere hor jarri beharko da bereziki arreta eta indarra plangintzaldi honetan.

1.1 AROA diseinatzeko prozesua:

Honakoak dira plana diseinatzeko jarraitu diren pauso nagusiak:

1.2 Talde eragilea osatzea:

AROA plana diseinatzeko talde eragilea osatu da. Bertan parte hartu dute Mari Karmen Arregi alkateak, Idoia Gonzalez liburutegiko langileak eta Eneritz Albizu UEMAko teknikariak. UEMAko teknikariak gidatu du talde eragilea, eta guztira hiru bilera egin dira: prozesua diseinatzeko, parte-

hartze prozesua bideratzekoa eta txostenaren emaitzak ixtekoa. Talde eragileko kideak etengabeko koordinazioan aritu dira prozesuan zeharreko lanak bideratzeko.

1.3 Prozesua diseinatzea:

Talde eragileak datuak jasotzeko eta lantzeko prozesua diseinatu du. Aizarnazabalgo kasuan, bilera ireki bat egin da herritarrekin; eta, ondoren, galdetegi bat zabaldu da herrian. Behin datu-bilketa horiek eginda, diagnostikoa, ekintza-plana eta txostena bera osatu dira.

1.4 Diagnostikoa egitea:

Aurrez dauden datuen bilduma egin da: soziolinguistikoak, osasungintzako datuak, banketxeen behaketako datuak, bilakaera demografikoari lotutakoak, ikus-entzunezkoen kontsumoa...

1.5 Galdetegia bidaltzea eta datuak jasotzea:

Herritarrei galdetegi bat bidali zaie herrian euskararen egoerari buruz duten iritzia jasotzeko. Guztira 57 herritarrek erantzun dute galdetegia.

1.6 Herritarren parte hartze saioak:

Herritarrekin saio ireki bat egin da, herriko datu soziolinguistikoak aurkeztu zaizkie herritarrei, baita azken urteetan eginiko lana ere. Hortik abiatuta, zer kezka dituzten adierazi dute eta kezka horiei erantzuteko ekintza proposamen batzuk jaso dira. Txosten honen eranskinetan jaso da bileraren akta.

Saioaren egitura:

- UEMAren aurkezpena eta prozesuaren nondik norakoak, labur.
- Diagnostikoa partekatzea:
 - Iñaki Iurrebasoren tesiaren gakoak.
 - Herriko datuak.
- Lehentasunak adosteko ariketa. Datozen 10 urteetan izango ditugun erronka nagusiak identifikatzea.
- 2035era bitarteko plangintzak jaso beharrekoak aztertu.

1.7 AROA plana diseinatzea:

UEMAko teknikariak txosten zirriborrea osatu du eta talde eragileari aurkeztu dio. Parte-hartze prozesuan parte hartu dutenei ekarpenak egiteko aukera eman zaie.

Behin ekarpenak jasota, azken txostena osatu da.

2 Diagnostikoa


Diagnostikoan, honako informazio hau bildu da:

- Aizarnazabalgo datu demografiko eta sozioekonomikoak.
- Aizarnazabalgo datu soziolinguistikoak.
- Herritarren iritzia Aizarnazabalen euskarak duen egoerari buruz.
- 2020-2023ko ESEParen balorazioa.

2.1 Aizarnazabalgo datu demografikoak eta ekonomikoak

2.1.1 Biztanle kopurua

2025eko urtarrilaren 1ean 761 bizilagun zeuden Aizarnazabalen erroldatuta. INE eta EUSTATEko datuak baliatuta, biztanleriaren bilakaera ikusteko aukera dugu.




Iturria: ENS eta EUSTAT.

Azken hamarkadetan, goranzko joera izan du Aizarnazabalgo biztanleriak. 1920-2021 epealdian, esaterako, hazkundera % 96koa izan zen. Dena den, azken urteetan beheranzko joera nabari da. Izan ere, 2021a eta 2025a artean, biztanleriaren % 4,3 galdu du, 34 bizilagun. Hego Euskal Herriko biztanleria asko areagotu da hamarkada hauetan (% 216); udalerrri euskaldunetan ere nabarmena izan da gorakada, baina apalagoa (% 90). Hortaz, udalerrri euskaldunetako biztanleriak pisu

proporzionala galdu du Hego Euskal Herrian.

2.1.2 Biztanleak, adin taldeka

Biztanleei adinaren arabera erreparatuz gero, azken urteetan gaztetu egin da Aizarnazabal. Nabarmen egin du gora herriko haurren kopuruak. Hurrengo bi adin taldeetan beherakada egin da 15-29 eta 30-44. Aldiz, nahiko egonkorak dira helduen eta adinekoen portzentajeak.



4. taula: Udalerriko biztanleria, adinaren arabera

	0-14		15-29		30-44		45-59		60-74		75-...	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
2001	66	12,0	138	25,0	124	22,5	121	21,9	68	12,3	35	6,3
2011	137	18,7	104	14,2	220	30,0	150	20,5	77	10,5	45	6,1
2021	163	20,5	90	11,3	192	24,2	166	20,9	138	17,4	46	5,8

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMAK landua

Aizarnazabal gainontzeko arnagune erasanekin, arnaguneekin edo Hego Euskal Herriko udalerriekin alderatuz gero, nabarmen altua da 0-14 urte arteko herritarren portzentajea. 15-29 urte arteko eta 75 urtetik gorako herritarren portzentajeak gainontzekoak baino baxuagoak dira.

5. taula: Adin-talde bakoitzaren pisu proportzionala biztanlerian (%)

	0-14	15-29	30-44	45-59	60-74	75-...
Aizarnazabal	20,5	11,3	24,2	20,9	17,4	5,8
Arnasgune erasanak	12,5	19,1	24,1	19,9	15,3	9,1
Udalerri euskaldunak	14,9	14,4	18,9	23,4	17,8	10,6
Hego Euskal Herria	13,7	14,4	19,4	23,5	17,8	11,2

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

Bestalde, biztanleriaren bilakaera aztertzeko garrantzitsua da hazkunde begetatiboaren eta jaiotza tasaren bilakaera ere aztertzea. Hazkunde begetatiboa da jaiotzen eta hiltzen direnen arteko aldea. 2020-2021 epealdian, negatiboa izan zen.

7. taula: Jaiotzak, heriotzak eta hazkunde begetatiboa (1996-2021)

	96-97	98-99	00-01	02-03	04-05	06-07	08-09	10-11	12-13	14-15	16-17	18-19	20-21
Jaio	9	7	6	10	17	14	20	30	31	23	15	10	14
Hil	13	12	8	13	8	9	9	8	14	14	8	10	17
Saldoa	-4	-5	-2	-3	9	5	11	22	17	9	7	3	-3

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

Jaiotza-tasak, berriz, adierazten du mila biztanleko zenbat ume jaio diren. Azken hamarkadan jaitsiera nabarmena gertatu da: Aizarnazabalen 5,8 puntuko jaitsiera, Hego Euskal Herrian 2,4 puntuko jaitsiera, eta udalerri euskaldunetan, 3 puntukoa. Udalerri euskaldunetan jaiotza-tasa handiagoa da Hego Euskal Herriko datu orokorretan baino. Hemen jaso dira lau eremuetako tasen datuak:


8. taula: Jaiotza-tasaren bilakaera

	1996-2001	2002-2005	2006-2011	2012-2015	2016-2021
Aizarnazabal	6,9	12,7	14,6	18,4	8,8
Arnasgune erasanak	8,2	9,9	10,8	10,1	8,0
Udalerri euskaldunak	8,7	10,4	10,8	9,8	7,8
Hego Euskal Herria	8,2	9,5	9,8	9,1	7,4

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

2.1.3 Biztanleen jatorria

Jaiotza-heriotzek soilik ez, migrazio-mugimenduek ere zuzeneko eragina dute biztanlerian. Hori hartu da aztergai orain. Aizarnazabalen behera egin du udalerrian bertan jaiotako herritarren kopuruak. Aldi berean, nabarmen egin du gora beste herrialdeetan jaiotako herritarren kopuruak: 10 puntu baino gehiago 10 urtean.



Era berean, udalerrri euskaldunetako bilakaera nabarmena da: herrian bertan jaiotako biztanleen ehunekoak behera egin du, eta Euskal Herritik kanpo jaiotakoen portzentajeak, gora; Hego Euskal Herrian jaiotakoen ehunekoa egonkor dago urteotan. Arnasgune erasenetan aldaketa handiagoa izan da, udalerrian jaiotakoak zortzi puntu jaitsi baitira. Udalerrri euskaldunekin oro har konparatuta, handiagoa da herrian jaiotakoen ehunekoa, eta apalagoa Hego Euskal Herriko beste udalerribatuetan jaiotakoena. Hona hemen hiru eremuetako datuak:

9. taula: Biztanleriaren jatorria (%)

	Udalerrria			Hego Euskal Herria			Besteak		
	2001	2011	2021	2001	2011	2021	2001	2011	2021
Aizarnazabal	58,4	45,6	46,6	38,5	41,8	39,6	3,1	12,5	13,9
Arnasgune erasanak	59,4	53,5	51,4	33,2	35,3	35,1	7,4	11,2	13,5
Udalerrri euskaldunak	50,3	47,1	45,8	37,2	37,5	37,1	12,5	15,5	17,1

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

2.1.4 Atzerrian jaiotakoak, herrialde taldeen arabera


Atzerrian jaiotako herritarren artean, Amerikakoak dira gehienak: %30. Asiakoak eta Afrikakoak %23,6 dira kontinente bakoitzetik, eta %22,2 Europako beste herrialde batzuetatik.

2.1.5 Jarduera ekonomikoa

Aizarnazabalgo jarduera ekonomikoaren % 71 industriaren arlokoa da. % 26 zerbitzuen arlokoa da; % 2 eraikuntzako eta % 1 abeltzaintza, nekazaritza edo arrantzari lotutakoa. Herriko enpresetan eta establezimendutan 646 pertsonarentzako lana sortzen da. Bestalde, Aizarnazabalgo herritarreko batez besteko errenta 24.932 eurokoa da.


2.2 Aizarnazabalgo datu soziolinguistikoak

Atal honetan jaso ditugu Aizarnazabalgo euskarari lotutako aldagaiak. Batetik, EUSTATEk argitaratzen dituen euskararen ezagutzaren, lehen hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren datuak. Bestetik, UEMA eta Soziolinguistika Klusterrarekin eginiko kale neurketako datuak.




	Biztanleak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1981	498	466	93,6	11	2,2	21	4,2
1991	515	497	96,5	18	3,5	0	0,0
2001	522	497	95,2	15	2,9	10	1,9
2011	704	596	84,7	57	8,1	51	7,2
2021	759	634	83,5	57	7,5	68	9,0

Euskararen ezagutzaren bilakaera beheranzkoa da. Biztanleria hazten joan den bezala, hizkuntzaren soslaiaren ikuspegitik, herritar anitzagoak daude Aizarnazabalen. Euskaldunen kopuruak ere gora egin badu ere, nabarmenagoa izan da euskaraz ez dakiten herritarren gorakada. Esaterako, 1991n ez zegoen euskaraz ez zekien inor Aizarnazabalen. 2021ean 68 pertsona zenbatu ziren, % 9.




	Biztanleak	Euskara		Biak		Gaztelania		Beste bat	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1991	677	666	98,4	2	0,3	8	1,2	1	0,1
2001	615	602	97,9	1	0,2	9	1,5	3	0,5
2011	616	530	86,0	22	3,6	56	9,1	8	1,3
2021	585	495	84,6	27	4,6	41	7,0	22	3,8

Lehen hizkuntzaren bilakaera beheranzkoa da. Kasu honetan, gainera, portzentajeetan ez ezik, zenbakietan ere behera egiten du euskara etxetik jaso duten herritarren kopurua. 2021eko datuei erreparatuz gero, % 10 pasatxo dira lehen hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat dutenak. Bestalde, ia % 5ak euskara eta gaztelania biak jaso ditu lehen hizkuntza bezala.




	Biztanleak	Euskara		Biak		Gaztelania		Beste bat	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1991	677	659	97,3	8	1,2	9	1,3	1	0,1
2001	615	579	94,1	16	2,6	20	3,3	0	0,0
2011	616	485	78,7	35	5,7	89	14,4	7	1,1
2021	585	441	75,4	49	8,4	79	13,5	16	2,7

Etxeko erabilerak izan du beherakada nabarmenena hiru aldagaien artean. Euskararen erabilerak behera egin du, portzentajeetan ez ezik, kopuruetan ere. 1991tik 2021a artean, 21,9 puntuko jaitsiera izan du; eta, gaur egun, lau aizarnazabaldarretatik batek euskara ez den beste hizkuntza bat (ere) hitz egiten du etxean. Aurrez aipatutako aldagai demografikoek eragina dute hizkuntzaren bilakaeran, eta Aizarnazabal urte gutxian horrenbeste hazi izanak ere ekarri du herriko errealitatea aldatzea.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, UEMA



Kaleko neurketari erreparatuz gero, datuek argazki desberdina erakusten digute. Kontuan izan behar dugu kale neurketa une bateko argazki bat dela. Astebetez egiten da neurketa, egunean bi orduz, eta

kalean entzundako elkarrizketak behatzen dira. Leku eta ordutegi horretan kalean dauden herritarren jarduna behatzen da. Alegia, EUSTATEk lagin bezala herritar guztiak kontuan izaten dituen bezala; kasu honetan, lagina murriztagoa da. Dena den, horixe da kale neurketaren helburua, bere hutsuneekin, kaleko jarduna eta arau soziala jasotzea.


Kasu honetan ikusten da euskaraz bizi den herria dela Aizarnazabal. Dena den, badira kontuan izateko gako batuk: erabileraren joera beheranzkoa da (datorren urtean, 2026an, egingo da hurrengo neurketa), adin tarte guztietan egin du behera erabilerak eta, batik bat, nabarmentzekoa da haurren arteko jarduna. Portzentaje aldetik ez dira zenbaki adierazkorrak, baina datozen neurketetan adi erreparatu beharko zaie bilakaerei.

2.3 Herritarren iritzia euskarak duen egoerari buruz

2025eko martxoan, inkesta bat zabaldu da herritarren artean. 57 herritarrek bete dute inkesta hori. Galdetegian eginiko galderen artean, galdetu zaie ea zein den euskararen egoera beren ustez. 57 herritar horietatik 46k adierazi dute, beren ustez, behera egin duela euskararen erabilerak herrian. 10ek esan dute mantendu egin dela. Herritar batek, berriz, adierazi du gora egin duela euskararen erabilerak.

Azken urteetan, zure ustez euskararen erabilerak Aizarnazabalen...

57 erantzun



Inkesta bete duten 57 herritarretik 46 emakumeak dira, eta 56k ondo ulertzen nahiz hitz egiten dute euskaraz. Horrez gain, batik bat, 26-65 urte arteko herritarrek bete dute galdetegia: 52k. 18-25 urte arteko 4 herritarrek bete dute; eta 65 urtetik gorako batek.

Herritarrei beren erantzunaren inguruko azalpena emateko ere eskatu zaie. Gehien errepikatutako argudioak multzokatu ditugu:

Aizarnazabalen euskarak behera egin du

Erabilera

- Kalean gaztelania gehiago entzuten da.
- Herriko establezimenduetan gehiago entzuten da gaztelania.
- Hurrek eskolan euskaraz egin arren, kalean eta parkean gero eta gehiago egiten dute gaztelaniaz.
- Euskara (ondo) ez dakigunok gaztelaniaz hitz egiten dugu.
- Euskara (ondo) ez dakitenekin erraz jotzen dugu gaztelaniara.
- Elkarrizketa batean erdaldun bat sartzen denean, denok egiten dugu erdaraz.
- Ama hizkuntza euskara duten haur asko kalean gaztelaniaz hitz egiten “saiatzen” dira. Errealitatearen isla.

Immigrazioa

- Jatorri atzerritarreko bizilagunak gero eta gehiago dira.
- Herriaren izaera aldatzen ari da. Herri txikiagoa eta herrikoagoa zen lehen Aizarnazabal. Gaztelania ari da bihurtzen zubi hizkuntza.
- Kulturartekotasunaren harira, garrantzia gutxiago eman zaio euskarari, inor baztertua ez sentitzeko, eta horrek eragina izan du euskararen erabileran.

Kontzientzia eta transmisioa

- Etxean eta kalean gurasoek izan behar dute eredu, baina ez da horrela.
- Kontzientzia falta da.

Pantailak eta ikus-entzunezkoak

- Kontsumo ohitura espainolak ditugu.
- Pantailak eragin nabarmena duten hurren eta gaztetxoengan.

Aizarnazabalen euskara mantendu egin da

Erabilera

- Azken urteetan behera egin zuen, baina orain egonkortu egin da.

- Hurrek euskaraz egiten dute parkean.
- Gure inguruan euskaraz hitz egiten dugu beti.
- Bizilagun berria: euskararen erabilera orokortua dago herrian.
- 2016tik hona ez da aldaketarik egon.

Kontzientzia eta transmisioa

- Orain artean euskaraz hitz egin izan dutenek, heltzen diote.

Ondoren galdetu zaie non ikusten duten euskara indartsuen eta non ahulen. Esparru bakoitzetik bost bozkatuenak hauek izan dira, hurrenez hurren:

- **Indartsuen:** adinekoen artean, eskolan, familian, lagunarteko harremanetan eta kultur eskaintzan.
- **Ahulen:** Haurren artean, sare sozialetan, gurasoen artean, lan harremanetan eta lagunarteko harremanetan.

Jarraitzeko, herritarrei galdetu zaie datozen urteetan zer arlotan eragin beharko litzatekeen euskararen sustapenean. Honako hauek errepikatu dira gehien, arestian bezala, hurrenez hurren, gehien aukeratu denetik hasita: haur eta nerabeen hizkuntza ohituretan, etorri berrien harreran eta integrazioan, euskararekiko kontzientzia (helduen ardurak), ikus-entzunezkoetan eta euskarazko erreferenteetan eta hitanoaren ezagutzan eta erabileran.

Herritarrekin eginiko bilera irekian ere antzeko ondorioak atera ziren.

Bilerara bertaratutako herritarrek hiru gai aukeratu zituzten dinamika baten bidez. Hiru esparru horietarako ekintza proposamenak ere jaso ziren. Honako hauek dira:

Kontzientzia eta euskalduntzea.

- Helduen/gurasoen kontzientzian eragin.
- Euskaldunak ahaldundu euskarari heltzeko.
- Herrian bertan euskara ikasteko taldea osatu eta mantendu modu jarraikor batean.
- Herriko gune batzuetako hizkuntza ohiturak aldatu: parkea, zenbait establezimendu...
- Herrian erabiltzen diren edo erabili izan diren hitzak eta esaera zaharrak mantentzeko zein sustatzeko ekintzak egin.

Etorri berriak eta harrera.

- Harrera plan bat egin.
- Urtean bizpahiru alditan, harrera saio bat antolatu herritar berriekin.
- Hasieratik euskararen aldeko mezua eman bizilagun berri guztiei.
- Lehen hitza beti euskaraz egin. Euskaldunekin landu.

Aisialdia eta erreferenteak.

- Herriko ekintza guztietan hizkuntza irizpideak zaindu.
- Euskarari balioa eman eremuz eremu: eskolan, etxean, kalean...
- Euskarazko erreferenteak eskaini: kultur eskaintza, hezitzaileak...

Horrenbestez, herritarren arabera, honako gaiei heldu beharko zaie lehentasunez datozen urteetan:



2.4 Orain arteko plangintzaren balorazio kualitatiboa

Familia transmisioa

Euskara transmititzearen garrantziaz kontzientziatzeko hainbat ekintza egin dira azken urteetan.

UEMAren HEDATU hezkuntza-proiektuaren baitan, honako lan hauek egin dira:

- Basakaitz ikastetxeko lehen zikloko ikasleekin eta beraien familiarekin hizkuntza ohiturei buruzko *Ispiluari Begira* tailerra egin da.
- Udako opor aurretik, hainbat urtez, eskuorriak banatu dira gurasoei seme-alaben hizkuntza ohituretan eragiteko aholkuak emanez.
- Eskolako aurrematrikulazioan gurasoen hizkuntza-profila jaso da azken lau ikasturtetan, guraso-tipologien berri izateko.

- Udaletik gutun bat eta autorako pegatina oparitzen dira guraso berri guztiei. Gutunaren helburua da gurasoei etxeko transmisioaren garrantzia ikusaraztea.

Euskara eta kulturartekotasuna

Euskara eta kulturartekotasuna egitasmoa jarri zen abian Aizarnazabalen 2022-2023 ikasturtean. Eskolatik abiatu zen lanketa, eta honako helburuak finkatu ziren: euskaraz bizitzea, guraso guztien komunikazioa bermatzea eta gurasoen parte-hartzea areagotzea. Honakoa zen galdera: Nola lortu dezakegu guraso guztiak komunitateko kide izatea beti euskaraz arituta eta euskara ardatz gisa hartuta? Horretarako, honako lan hauek egin dira azken urteetan:

- Marko teorikoaren aurkezpenak gurasoekin, irakasleekin eta eragileekin.
- Guraso bileretan aldaketak: metodologia eta aldibereko itzulpena.
- Gurasoekin banakako bileretan, etxeko hizkuntza erabiltzeko saiakerak.
- Guraso elkartearen Telegram kanala.
- Ikastetxean bertan kulturartekotasunarekin lotutako ekintzak. Esaterako, “ongi etorri” ikastetxeko ikasleen hizkuntza guztietan sarreran.

Eskolatik kanpo ere, herri mailan, lanketari jarraitu zaio:

- ‘Zer berri Aizarnazabalen’ Telegram kanala.
- Sustapen bideoa.
- Gaiarekin lotutako ekintzak, jaiak, informazioa...

Etorri berriei harrera

Aizarnazabalen erroldatzen diren bizilagun berriei eskuorri bat banatzen zaie. Bertan, herriko informazio esanguratsuena jasotzen da. Horrez gain, adierazten zaie euskararen herrira datozela bizitzera, herria euskaraz bizi dela, eta hainbat aukera dituela euskara ikasi eta integratzeko. Eskuorri horiek prest daude Euskal Herritik iristen diren bizilagun euskaldunentzat, erdaldunentzat edo beste herrialdeetatik datotzen bizilagunentzat (zortzi hizkuntzatan).

Irakaskuntza

UEMAren bidez, Basakaitz eskolako irakasleek hainbat formazio jaso dituzte azken urteetan, eta ikasleekin ere tailerrak egin dira. Gainera, ikasleekin lantzeko materiala -unitate didaktikoak- ere eskaini zaio eskolari, ikasleekin kontzientziario soziolinguistikoa lantzeko. Azken aldiz 2024-2025 ikasturtean egin da irakasleentzat formazio soziolinguistikoa eta unitateei dagokiena. Ikasgelan euskarari heltzeko estrategien saioa, berriz, 2023-2024 ikasturtean egin da azkenekoz. Bestalde, hirugarren zikloko ikasleekin *Bagoaz!* tailerra egiten da, ikastetxez aldatu ostean, Zumaiara joatean, hizkuntzari heldu diezaioten.

Euskalduntzea

Aizarnazabalgo Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak eskaintzen ditu, eta saiakera egiten da herrian bertan euskara ikasteko taldea sortzeko. Azken urteetan ez da sortu talderik.

Merkataritza eta ostalaritza

UEMAk bi kanpaina egiten ditu urtero sektorean euskararen erabilera sustatzeko, eta itzulpen zerbitzua ere eskaintzen die establezimenduei. Horrez gain, uda atarian euskararen garrantzia ikusarazteko mahai gainekoak banatzen dira herriko establezimenduetan.

Aisia eta kirola

Aisiari dagokionez, Aizarnazabalgo elkarte gehienek euskaraz funtzionatzen dutela esan daiteke, beraz, alor honetan egoera ona da.

Herritarren kontzientziarioa

Herritarren kontzientzian eragiteko unean uneko egitasmoak jartzen dira abian, azken urteetan eginiko batzuk dira, besterako:

- Bizkarsoro filmaren emanaldia.
- *Egin nirekin ere euskaraz* kanpainaren bi edizio egin dira: hurrekin 2024an, eta ostalariekin 2025ean.
- Euskaraldia.
- Korrika.
- Euskararen eguneko jaiak eta lanketak.

Administrazioa

Udal barruko euskararen erabilera areagotzeko plana du Aizarnazabalgo Udalak, eta urtean hirutan egiten zaio jarraipena. Udal jardunaz gain, beste erakundeek kudeatutako zerbitzuei ere jarraipena egiten zaie: errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina, banketxeen behaketa edo bi urtez behin egiten den Osakidetzako datuen bilketa, esaterako.

3 AROA 2024-2034

3.1 Nahi estrategikoa, misioa eta ikuspegia

3.1.1 Misioa

Aizarnazabal euskal hiztun kontziente eta aktiboak dituen herria izatea, euskararen erabilera handitzeko.

3.1.2 Nahi estrategikoa

Aizarnazabalgo eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datozen urteetarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko eta Aizarnazabal euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboago eraikitzen laguntzeko.

3.1.3 Ikuspegia

- Aizarnazabalen euskararen transmisioa bermatuko da, familiakoa nahiz herri mailakoa.
- Euskararen ezagutza eta erabilera areagotu egingo dira.
- Hizkuntza portaera kontzienteak dituen euskal komunitate bizi eta indartsu bat izango dugu.
- Euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu Aizarnazabalgo gizarte esparru guztietan.
- Euskara bihurtuko da Aizarnazabalgo komunitateko kide izateko bidea.
- Aizarnazabal datozen biztanle berriek bisitariak nabaritu dute Aizarnazabal euskaraz bizi dela.

3.2 Ardatz estrategikoak, erronkak, lan ildoak, ekimenak eta ekintzak

Atxikitako PDF osagarrian ikusgai.

AIZARNAZABALGO UDALA - AROA 2025 - 2035



Nahi estrategikoa: Aizarnazabal eskal hartzun kontzientzia eta aktiboak dituen herria izatea, euskararen erabilera handitzeko.
Misioa: Aizarnazabalgo eragile publiko zein pribatu guzientzako marka eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, eskal hartzunak aktibatu eta ahalduzko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko eta Aizarnazabal eskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboago eraikitzen laguntzeko.
Ikuspegia: - Aizarnazabalen euskararen transmisioa bermatuko da, etxetik eta herritik. - Euskararen ezagutza eta erabilera areagotu egingo dira. - Hizkuntza portaera kontzientzia dituen eskal komunitate bizi eta indartsu bat izango dugu. - Eskal hartzun aktibo gehiago izango ditugu Aizarnazabalgo gizarte esparru guztietan. - Euskara bihurtuko da Aizarnazabalgo komunitateko kide izateko bidea. - Aizarnazabalerako datoen bisitariak nabaritzeko dute Aizarnazabal euskaraz bizi dela.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK, ERRONKAK, LAN ILDOAK, EKIMENAK ETA EKINTZAK

MAILA	UDAL ETA GARAPEN AGENTZIEN ESKUMENKO ZERREDA SAILKAPENA	Arduraduna(k)	Adierazleak	
1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: GOBERNANTZA	1. ARDATZ ESTRATEGIKOA	GOBERNANTZA		
	ERRONKA	G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eramana.		
	Lan-ildoak	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.		
	Ekimena	G.1.2.1. EAEko eta Nafarroako administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.		
	Ekintza	Udalarekin elkarlanean aritu AROA planaren jarraipena egiteko	Udala-UEMA	bileren aktak
	Ekintza	UEMAREN plan estrategikoa eta Udaleko plan estrategikoa bateratu elkarren osagarri izan daitezzen.	Udala-UEMA	plan estrategikoa
	Ekimena	G.1.2.2. Erakunde publikoen eta eskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.		
	Ekintza	Herriko eskalgintzako eragileekin koordinatu eta elkarlanean ildoak zehaztu.	Udala-UEMA	adostutako plangintza
	Lan-ildoak	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.		
	Ekimena	G.1.3.1. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredu garriak indartu eta garatu.		
	Ekintza	Arduradun politiko eta teknikoei euskararen inguruko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu.	Udala-UEMA	sentsibilizazio saioak
	Ekintza	Udal arduradun eta langileen hizkuntza ohiturak aztertu, eta euskara gehiago erabiltzeko bideak adostu.	Udala-UEMA	Ekintzak
	Ekimena	G.1.3.2. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredu garriak areagotu.		
	Ekintza	Udalaren Erabilera Plana bete.	Udala-UEMA	erabilera plana
	Ekintza	Plan eta proiektuen jarraipena egin, eta ELE egingo zaiela ziurtatu.	Udala-UEMA	legindako ELEak
	ERRONKA	G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.		
	Lan-ildoak	G.2.3. Gizartearen antzetasuna kudeatu euskara ardatz izanik.		
	Ekimena	G.2.3.1. Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatu, komunikazio-esparruak zabalduz.		
	Ekintza	Ikastetxearekin etengabeko harremana izan, euskararen erabilera sustatzeko dituzten behar eta hutsuneak erantzuteko eta estrategiak elkarrekin	Udala-UEMA	bilerak/mezuak/deiak
	2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: JARRERAK / MOTIBAZIOAK	2. ARDATZ ESTRATEGIKOA	JARRERA / MOTIBAZIOA	
ERRONKA		JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hartzunen ahalduzkoan, hizkuntza-ohituretan eta -portaretan eragin.		
Lan-ildoak		JM.1.2. Gizartea aktibatuzko esperientziak indartu eta hedatu.		
Ekimena		JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu.		
Ekintza		Lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak sustatu: Egin Nirekin euskaraz...	Udala-UEMA	kanpaina
Ekintza		Herritarrei beti euskaraz egitera animatzeko bideak landu. Helburua: lehen hitza beti euskaraz izan dadila Aizarnazabalen. Batik bat, helduen ohiturak aldatzeko saiakerak egin.	Udala-UEMA	Ekintzak
Ekintza		Gizartea aktibatuzko ekimenak lagundu (Euskaraldia, Korrika)	Udala-UEMA	lagundutako ekimenak
Lan-ildoak		JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.		
Ekimena		JM.1.3.1. Ahalduzko-prozesuak sortu eta dinamizatu.		
Ekintza		UEMAREN HEDATU proiektuaren bidez, ikastetxeen formazioak eman irakasle, guraso eta haurrentzat, besteak beste arnaguneen eta hizkuntza jarrearen inguruko sentsibilizazioa lantzeko.	UEMA	formazio saioak eta parte hartzea.
Ekintza		UEMAREN Salto! Udaleku ibiltaria animatu herriko gazteboak.	UEMA	parte hartze datuak
Ekintza		Arnaguneen eta udalerririk euskaldunen errealtatearen eta garrantziaren gaineko kontzientziazioa landu	UEMA	formazioak, parte hartzea eta asebetzea
Ekintza		Herritar euskaldunak ahalduzko eta kontzientziazio egitasmoak abiatu: <i>Arnasa Gara</i> ...	UEMA	egitasmoak
Ekintza		Helbidekin hizkuntza kontzientzia landu: euskarari eustea, euskaraz egiteko haua transmititzea...	Udala-UEMA	Ekintzak
Ekintza		Herriko hainbat gune identifikatu eta horien hizkuntza ohiturak aldatzeko lana egin: parkea, establezimenduak...	Udala-UEMA	Ekintzak / herritarren parte-hartzea
ERRONKA		JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.		
Ekimena		JM.2.2.1. Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi.		
Ekintza		Bisitariak euskararen berri emateko eta euskara partekatzea animatzeko lanak egin.	Udala-UEMA	Euskarrietara bisita kopuruak
Ekintza		Bisitarien guneetan euskarari buruzko informazioa, herriko euskara, historia... eskaini. Euskara herriko ondare inmateriala dela nabarmendu.	Udala-UEMA	Euskarriak
Lan-ildoak		JM.2.3. Euskarara hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakarri.		
Ekimena	JM.2.3.1. Euskaratik urrun daudenen pertzepzioetan sakondu.			

BETAURREKO MOREAK:

Plan hau eta ekintzak genero ikuspegiarekin osatzeko proposamenak jaso ditugu ondorengo hitz hauetan. Jarraibide eta adibide batzuk proposatu nahi izan ditugu, berdintasun sailarekin elkarlanean egiteko:

- Errealitate soziolinguistikoa genero ikuspegiak aztertu:
- Udalak egiten dituen inkesta, estatistika eta datu bilketetan genero aldagaia txertatu sistematikoki (programetako izen emateak, norbanakoei emandako diru-laguntzak, programetako kultur/kirol ekimenetan eskaintza eman (sortzaile, entrenatzaile...) eta jaso dutenak (herritarrek), Euskara Batordeetan parte hartu duten pertsonak, eskalgintzetan izen emandakoak, Eskalgintzako erakundeetako kideak, eta horietan arduratu postuetan daudenak...)
- Adierazle berriak ezartzea aztertu, genero aldagaia aintzat hartuz (adierazleak planteatu beharko lirarteke behin

5. ARDA ATZ ESTR ATEG RAT	4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ERABILERA / ELKARRERAGINA	Ekintza	Erdaldunei euskararen inguruko saiok eskaini, hizkuntza aniztasunari, euskararen egoerari eta arnasguneen garrantziari buruzko informazioa jaso dezaten eta euskararekin duten harremanari buruz hitz egin dezaten, aurrera begira baliabideak eta tresnak eskaintzeko.	UEMA	Formazioak	
		Ekimena	JM.2.3.2. Atzeritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.			
		Ekintza	Etorri berriei hizkuntza harrera egin: eskuorriak egokitu, hainbat hizkuntzataraz itzuli eta harrera saiok egin.	Udala-UEMA	Baliabideak/parte hartze datuak	
		Ekintza	Escolei harrera programak antolatzeko laguntza eskaini.	Udala-UEMA	Baliabideak	
		Ekimena	JM.2.3.3. Atzeritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta eskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu.			
		Ekintza	Euskara eta kulturartekotasun proiektua aurrera eraman. Euskara ardatz izanik, kultura ezberdinetako herritarrak elkarrengana hurbiltzeko, ulermena bermatzeko eta parte hartzea sustatzeko.	UEMA	Parte hartzea/ekimenak	
		3. ARDATZ ESTRATEGIKOAK EZAGUTZA / GAITASUNA				
		ERRONKA				
		EG.1. Euskararen eta eskal kulturaren transmisioa eragin.				
		Lan-ildoak	EG.1.2. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.			
		Ekimena	EG.1.2.1. Hezitzaile eta irakasleei eskal kulturaren eta praktika soziolinguistikoan inguruko prestakuntza, materialak eta praktika onak eskaini.			
		Ekintza	Irakasleak eta hezitzaileak trebatu soziolinguistikan eta erabilera estratejietan.			
		Ekintza	Aisialdi, kirol eta kultura arloan estratejikoak diren elkartei formazio soziolinguistikoa eman (begiraleak, entrenatzaileak...).	UEMA	formazio saiok eta parte hartzea.	
		Ekimena	EG.1.2.2. Herriko euskaltia eta hizkuntza ondarea babestu eta ezagutarazi.			
		Ekintza	Herriko hitz eta esaera zaharrak jaso bildu eta herritarren artean zabaldu.	Udala	Bildutako proposamen kopurua / eginiko ekintzak.	
		ERRONKA				
		EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.				
		Lan-ildoak	EG.2.1. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.			
		Ekintza	Herrian taldea sortzeko laguntza eta baliabideak eskaini.	UEMA-Udala	Euskalduntze datuak	
		Ekintza	Dirulaguntzen ordenantza eguneratua izan, dokimatusa heiburu.	UEMA-Udala	Or denantza	
Ekintza	Erdalduntzen ari diren lan eremuetan euskara ikastaroak emateko aukerak aztertu (ostalaritza, zaintza-lanak, arrantza...);euskara zero, euskara plus	UEMA-Udala	Ikastaroak			
ERRONKA						
EG.3. Jatorriko herritarren erabilera hurbiltzen diren atzeritar jatorriko herritarren kopurua handitu.						
Lan-ildoak	EG.3.1. Atzeritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.					
Ekimena	EG.3.1.1. Atzeritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu dezaten aukerak erraztu.					
Ekintza	Atzeritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan (udalekuak, kirola...) parte har dezaten sustatzeko bideak landu.	UEMA	Parte hartze datuak			
4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ERABILERA / ELKARRERAGINA						
ERRONKA						
EE.1. Euskara eguneroko bizitzan erosi erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.						
Lan-ildoak	EE.1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu					
Ekimena	EE.1.1.1. Belauneko belauneko transmisioa indartu eta etbiko erabilerari eutsi.					
Ekintza	Haurrei zein helduei beti euskaraz egitearen garrantzia nabarmentzeko ekimenak martxoan jarri.	Udala-UEMA	Baliabideak			
Ekintza	Irakasleen gurasoen hizkuntza profila jaso, guraso eta familia tipologiaren berri izateko eta bilakaera aztertzeko.	UEMA	Datuen bilakaera			
Ekintza	Abizenen euskalduntzeko kanpainak egin.	UEMA	Abizena euskaraz jarri dutenen kopurua			
Ekimena	EE.1.1.2. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.					
Ekintza	Merkataritzan eta ostalaritzan, euskararen erabilera sustatzeko kanpaina egiten jarraitu: sentsibilizazioa (eskuorriak, mahai gainekoak) eta itzulpen zerbitzua eskaini	UEMA-Udala	Merkataritza-ostalaritzako hizkuntza paisaia datuak / langileen hizkuntza gaitasuna			
Ekintza	Aldian-aldian, osasun langileen hizkuntza ezagutzaren azterketa egin.	UEMA	Datuen bilakaera			
Ekimena	EE.1.1.3. Aisialdi antolatua eraman eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.					
Ekintza	Euskarazko zinema eta kultur emanaldiak areagotu.	Udala-UEMA	Euskarazko zinema emanaldien datuak			
Ekintza	Gazteko euskarazko erreferenteak eskaini: euskal kulturaren, kirolean edo beste esparruetan arrakasta duten erreferenteak hurbildu.	Udala	Ekintzak.			
Ekintza	Herriko ekintza guztietan, izan udalak antolatutakoak edo ez, hizkuntza irizpideak txertatu eta jarraipena egin: musika, aurkezleak, komunikazioa.	Udala	Intzidentziak			
Ekintza	Herriko elkarteekin lanetan egin, herriko errealitate soziolinguistikoaz jabetzeko, hizkuntza irizpideak zehazteko eta hizkuntza kudeaketaren inguruko komunikazio formatuak adosteko	Udala-UEMA	Herriko elkarteet hizkuntza erabilera datuak			
Ekimena	EE.1.1.4. Konsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabili dezaten.					
Ekintza	Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina egin	Udala-UEMA	Errenta aitortpena euskaraz egin duten %aren bilakaera			
5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK: BERRIKUNTZA						
ERRONKA						
B.1. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu						
6. ARDATZ ESTRATEGIKOAK: IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA						
ERRONKA						
IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estratejikoetako erroka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.						
Ekintza	UEMAren ikerketak herriratu.	UEMA	ikerketak			
7. ARDATZ ESTRATEGIKOAK: KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA						

7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA	ERRONKA	KH.1.Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu		
	Ekintza	UEMAk egiten duen lanaren berri eman eta hartzailer motaren arabera egokitu.	UEMA	Komunikazio kanalak
	Ekintza	Zer berri? Indartu eta euskarazko herri komunikazioa sustatu.	Udala	Harpideak
	Ekintza	Euskarazko hedabideekin elkarlanean, herri komunikazioa indartu.	Udala	Komunikazio etengabea Dirulaguntzak